

ETORKIZUN PARTEHARTZAILEAK | ESPEKULAZIO TALDEAn parte hartzeko deialdia

Une honetan, inoiz baino gehiago, etorkizunaren inguruko kontakizun berriak behar ditugu, eta hauek elkarrekin pentsatzea ere. Bide horretan, praktika artistikoek hainbat arazoen inguruko erantzun eta iruditegi berriak ikertzen laguntzen digute. Artearen egiteko moduak gizartearen erronken aliatu gisa kokatuko dituen prozesu bat aktibatu nahi dugu, orainaren beste forma batzuk eta etorkizun desiragarriak aztertzen lagunduko diguten etorkizuneko irudi eta agertokiak sortuz eta hauen inguruan eztabaidatuz.

ESPEKULAZIO TALDEA

AAEE-tako fakultatean [Espekulazio Talde](#) bat osatzeko deialdia bueltan da: pentsamendu, eztabaida eta ekintza-talde iragankor bat espekulazio-prozesu kolektibo bat garatzeko, non artearen hizkuntzetatik lan egingo dugun, 3 tailerreko programa baten bidez artista gonbidatuekin batera.

[Aurreko edizioan](#), Espekulazio Taldeak 2045ean kokatutako etorkizuneko eszenatoki bat irudikatu eta sortu zuen, eta etorkizun horren zati bat eraiki zuen Arte Ederren Fakultatean ate dimentsional bat gisa, non [komunitate nomada panfronterizo baten kanpamentua](#) bertan ezarri zen.

Helburua 2045 horretan murgiltzea da orain, sortutako errelatu hori praktika artistikoen lengoaietatik eta moduetatik garatzen eta gorpuzten jarraitzeko, ondoren ihesbideak, konponbideak eta estrategiak irudikatu ahal izateko.

Talde hau gradu eta masterreko ikasleei eta Arte Ederretako Fakultateko irakasleei irekita dago. Espekulazio Taldean parte hartzeak programa osatzen duten 3 tailerretara joatea dakar.

PROGRAMA

- [Bidaiarako prestatu: etorkizuna ez da existitzen - Tipi | Urtarrilak 27. Iraupena 3 ordu](#)
Nola ulertzen dugu etorkizuna? Nola hurbiltzen gara bere gana? Nolakoa izan liteke? Teoria eta praktika espekulatiboen inguruko sarrera eta 2045 urtean kokatutako etorkizun posible batekin lehen hartu-emanak.
- [Sakonera murgiltzea - Blanca Arias | Otsailak 3. Iraupena 4 ordu](#)
2045eko bizitzaren, arlo publikoaren, pribatuaren eta politikoaren hainbat alderdi gorpuztuko dituzten irudi, bideo eta narratiba birtualak sortuko ditugu. Tresna eta estrategia digitaletatik abiatuta lan egingo dugu Blanca Arias artistaren eskutik.

- 2045: erritualak eta erretalak - Mikel Ruiz Pejenaute | Otsailak 10. Iraupena 4 ordu
2045eko kulturari, folkloreaki eta eguneroko elementuei forma emango diegu. Ehungintzaren estrategiak direla medio, garai hartan egongo diren ohitura eta erritualetan sakontzen lagunduko ditugun elementuak eta jantziak sortuko ditugu Mikel Ruiz Pejenaute artistaren eskutik.

IZENA EMATEKO PROZESUA

Izena emateko epea: abenduaren 13tik urtarrilaren 13ra.

Formulario hau bete behar da: <https://form.typeform.com/to/ZWZKM74U>

Informazio gehiago nahi baduzu, idatz ezazu helbide honetara: kaixo@tipigara.co

Espekulazio Taldean parte hartzeak programa osatzen duten 3 tailerretara joatea dakar.

TIPIK BULTZATUTAKO PROPOSAMENA

Diziplina anitzeko kooperatiba bat gara, ideia, metodologia eta egiteko modu berriak erabiliz modu parte-hartzailean lan egiten duena. Tipin eraldaketarako proiektuak garatzen ditugu. Gure lana, beren etorkizuna taxutzeko gai izango diren komunitate autonomoagoak sortzeko baliagarria izatea nahi dugu.

Deialdi hau TOPIAK ikerketa-proiektuaren parte da. Topiak, bitartekaritza-prozesuetan ikuspegi espekulatiboak aztertzeko eta esperimintatzeko motibaziotik sortzen da, bai eta praktika artistikoen, Etorkizuneko Ikasketen eta Diseinu Espekulatibo eta Kritikoaren arteko elkargunetik sortzen diren perspektiba eta taktiketarik ere.